

IKASTETXEA	BIURDANA		
IZENBURUA	Zenbaki bakoitiak batzen	MAILA	DBH 1
IRAKASLEA	<i>Leire Martínez Iraola</i>	IKASGAIA	MATEMATIKA

DBHrako Irakurketaren Ulermenerako Hobekuntza Plana.


TESTUA

Izenburua

Zenbaki bakoitiak batzen

Zenbaki bakoitiak batu nahi baditugu, modu erraz bat dago hauek batzeko, hori bai, ondoz ondokoak izan behar dute. Hau da $1 + 3 + 5 \dots$

Nola egin daiteke batuketa hau? irudietan azaltzen den moduan $1 + 3$ egiteko adibidez; karratu bat jartzen dugu eta honen ondoan beste 3 inguruan. Ikusten den moduan, 4 laukiko karratu bat lortuko dugu eta $4, 2^2$ da. Gauza bera egiten badugu 3 zenbakiekin 9 laukitxo lortuko ditugu hau da 3^2 . 4 zenbaki batzeko, beraz, 4^2 izango da, eta abar.



JATORRIA	
EGILEA	José Colera eta Ignacio Gaztelu
IZENBURUA	Informazio bila
ARGITALETXEA/Webgunea	ANAYA HARITZA DBH 1
URTEA	2007
ORRIALDEA (K)	Liburuko 52. orria
ISBN	
TESTU-MOTA	
OINARRIA	Inprimakia
FORMATOA	Mistoa
MOTA	AZALPENA
ERABILERA	HEZKUNTZA

ESTRATEGIAK

IRAKURRI BAINO LEHEN

1. **Irakurketaren helburuak**: Irakurri informazio zehatza eskuratzeko, zenbaki osoen baturari buruz (zenbaki bakoitiak eta ondoz ondokoak)
2. **Aurreko ezagutzen aktibazioa**: zenbaki osoen berreketak. Batuketak, ondoz ondoko zenbakiak, zenbaki bakoitiak...

OHARRAK

IRAKURRI BITARTEAN

1. **Irudien ikerketa**: zer nolako informazioa igortzen duten ikertzeko eta egokiak diren pentsatzeko.
Ikasleak konturatu behar dira aritmetika eta geometriaren arteko erlazioaz: zenbakiak irudi geometrikoen bidez adierazi daitezkeela.
2. **Informazio garrantzitsua markatzeko estrategia materialak**: Gako diren hitzak azpimarratu behar dituzte, hala nola: *zenbaki bakoitiak, ondoz ondoko zenbakiak, laukitxo, zenbaki batzeko*.
3. **Nork bere buruari galderak egitea irakurtzen ari denaren gainean**, adibidez, zenbaki bakoitiak irakurtzean, beste zenbaki moten inguruan, kolore ezberdinen inguruan...

OHARRAK

IRAKURRI ONDOREN

1. **Laburpena egitea ideia orokorra agerian uzteko**: Ikasleek ikusi behar dute hiru bide ezberdin daudela zenbaki bera adierazteko, modu grafikoa, modu aritmetikoa eta berreketak.
2. **Inferentziak egitea**: Pentsatu zergatik izan behar duten zenbakiak ondoz ondokoak eta bakoitiak; zenbakien arteko lotura horiek ikusita, pentsatu beste lotura posibleetan zenbaki berriak agertzeko.

OHARRAK